

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Produktuak ondo funtzionatzeko, lehenik eta behin, beharrezkoak dira baliabide fisikoak: eguzki-energia modu eraginkorren aprobetxatzen duen eguzki panela, energia gordetzeko bateria seguru bat, eta material arinak eta iraunkorrak, zorro eroso eta eguneroko erabilerarako egokia izateko. Horrez gain, ekoizpenerako tresnak, logistika eta hornitzaile fidagarriak ere baliabide fisikoen parte dira.

Bestetik, baliabide intelektualak funtsezkoak dira produktu berezi bat sortzeko eta besteetatik bereizteko. Horien artean, zorroaren diseinu propioa sartzen da, hau da, guk edo erosleek sortutako itxura eta forma; eguzki-kargari buruzko teknologia ezagutza, mugikorra modu seguruan eta eraginkorren kargatzeko; eta berrikuntza, etengabe hobekuntzak bilatzeko. Gainera, marka edo irudi korporatiboa ere baliabide intelektuala da, bezeroek produktua erraz ezagutzeko eta konfiantza izateko balio duelako.

Era berean, giza baliabideek zeregin garrantzitsua dute proiektuan. Ingeniariak behar dira sistema teknikoa garatzeko, diseinatzaileak zorroaren itxura eta erabilgarritasuna lantzeko, eta marketin- eta salmenta-arduradunak produktua bezeroengana iristeko. Talde on batek proiektuaren kalitatea eta arrakasta bermatzen ditu.

Azkenik, finantza-baliabideak funtsezkoak dira produktua aurrera eramateko, dirua behar da produktua martxan jartzeko. Diru horrekin, adibidez, prototipoak sortu, produktuaren ekoizpena finantzatu, hornitzaileekin ordaindu, eta marketin kanpainak eta salmentak egin daitezke. Finantzaketa egokia izateak enpresari segurtasuna ematen dio eta laguntzen du produktuaren arrakasta lortzen.